

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2014ko martxoaren 7an aurkeztuko du

Christian Marclay: *Erlojua (The Clock)*

Christian Marclay: Erlojua (The Clock)

- Datak: 2014ko martxoaren 6a–maiatzaren 18a
- Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya
- Film & Video aretoa (103)

Guggenheim Bilbao Museoak [Christian Marclay: Erlojua \(The Clock\)](#) erakusketa aurkeztuko du. Erakusketa honek 103. aretoko egitarau berri bati hasiera emango dio: bertan erakutsiko dira irudia mugimenduan darabilten lanak, bideoarte eta bideoinstalazioa. Gune horrek **Film & Video** izena du, eta azken aldiko bideo-lanak, Guggenheim Museoetakoak zein beste bilduma batzuetakoak, erakutsiko ditu.

Erlojua (The Clock, 2010) da 2014an aurkeztutako lehen bideoinstalazioa. Christian Marclay (San Rafael, Kalifornia, 1955) artistak hasiera emango dio Film & Video ekimenari, *Erlojua (The Clock, 2010)* lan ezagunaz. Lan hau egiteko, denboraren igarotzea aditzera ematen duten telebistako eta zinemako milaka sekuentzia editatu ditu: askotariko erlojuak agertzen dira, hala nola, dorreetan daudenak, eskumuturrekoak, iratzargailuak, kuku-erlojuak... Irudi hauetan guztietan denbora da filmaren narrazioaren protagonista. Trebetasun handia du artistak jatorrizko testuingurutik eszena horiek ateratzeko eta 24 orduko muntaia batean txertatzeko; gainera, denbora errealekin sinkronizatu ditu. *Erlojua* aldi, testuinguru eta film mota oso ezberdinetatik ateratako irudiekin eraikita dago eta horien jatorrizko bilbeak hamaika narrazio pasartetan zatikatu direla dirudi; baina, gezurra badirudi ere, osotasunak erritmo uniforme lortzen du, denborak bere baitan duen kontakizunak zati horiek berriro ordenatu izan balitu bezala. Izan ere, uneoro narrazioaren aukerak zabalak dira: eszena erromantikoak, tragikoak zein misteriotsuak etor daitezke. Erakusgai dagoen lekuko denborarekin sinkronizatuta dagoenez, batu egiten dira filmeko denbora eta denbora erreala.

Marclayren lanak diziplina asko barne hartzen ditu, besteak beste, eskultura, argazkigintza, collagea, pintura eta performancea, eta bereizgarri du soinuaren eta bideoaren arteko bidegurutzeak aztertzea. Zinemaren kultura arakatu du eta aurkitutako zatiak beste testuinguru batean txertatu ditu hainbat lan, ikus-entzunezkoen uztarketa hipnotikoak, egiteko, hala nola: *Telefonoak (Telephones, 1995)* —Hollywood-eko filmez egindako emozio handiko muntaketa honetan pertsonaiak telefonoz deitu eta erantzuten dute—, pantaila anitzeko *Bideo laukotea (Video Quartet, 2000)* eta *Su gurutzatua (Crossfire, 2007)*.

Marclayren bideo-lanak konposizio abstraktuzat jo daitezke: irudiak eta soinuak bata bestearen atzetik agertzen doaz, eta erritmoa ematen diote lanari; aitzitik, narraziotzat ere har daitezke: sekuentzia horrek ikuslea suspertzen du, askotariko asoziazioak eragiten baitizkio, kulturari eta

oroimen pertsonalei lotutakoak. *Erlojua* lanean bi ikuspegietatik behatzera gonbidatzen gaitu: zinemako irudien collagea ikus dezagun, baina baita gurutzatzen, hasten zein amaitzen diren istorioen bildumaz ohar gaitezen. Denboraren eta narrazioaren zerizaren inguruko hausnarketa bat da.

Nazioartean maiz ikusgai egon da *Erlojua*, 2010ean estreinatu zenetik, baina Espainian lehenbiziko aldiz erakutsiko da. Londresen, New Yorken, Seulen, Moskun, Jerusalemen, Parisen, Bostonen, San Franciscan eta beste hainbat hiritan izan da; are Venezian, bertako 54. Bienalean, 2011n, non Marclayk Urrezko Lehoia irabazi zuen.

Ordutegi berezia

24 orduko artelana osorik ikustea errazteko, Atrioa eta Film & Video aretoak guez egongo dira zabalik lau egunetan, lana ikusgai dagoen bitartean. Egun hauetan egongo da zabalik guez:

Martxoaren 8a, larunbata (10:00)–martxoaren 9a, igandea (20:00)

Martxoaren 28a, ostirala (10:00)–martxoaren 29a, larunbata (20:00)

Apirilaren 26a, larunbata (10:00)–apirilaren 27a, igandea (20:00)

Maiatzaren 17a, larunbata (10:00)–maiatzaren 18a, igandea (20:00)

Christian Marclay. Biografia

Christian Marclay San Rafael-en, Kalifornian, jaio zen 1955an eta Genevan hazi zen. Bertan ikasi zuen, École Supérieure d'Art Visuel-en. 1977an Bostonera joan zen bizitzera (Massachusetts, AEB) eta Massachusetts College of Art-era sartu zen; bertan lortu zuen gradua 1980ean. 1978an, hiruhileko batez, New Yorkeko Cooper Union-en egon zen, truke ikasle gisa; bertan ezagutu zuen Hans Haacke.

Marclayren lanak mundu osoko museoetan eta galerietan erakutsi dira. Bakarko erakusketak izan ditu erakunde hauetan, besteak beste: Washington-eko Hirshhorn Museum and Sculpture Garden (1990), Veneziako Bienala (1995), Genevako Musée d'art et d'histoire (1995), Zürich-eko Kunsthaus Zürich (1997), Chicago-ko Museum of Contemporary Art (2001), San Francisco Museum of Modern Art (2002), Genevako MAMCO Musée d'art moderne et contemporain (2008), New Yorkeko Whitney Museum of American Art (2010); Seuleko Leeum Samsung Museum of Art (2010), eta Moskuko Garage Center for Contemporary Culture (2011).

Los Angelesko UCLA Hammer Museum-ek 2003an atzera begirako bat eskaini zion, eta nazioartean bidaiatu zuen, besteren artean, Seattle Art Museum-en, Londresko Barbican Centre-n eta Avignongo Collection Lambert-en. 2007ko martxoan, Marclayren bideo-lanak Parisko Cité de la Musique-n izan ziren, bakarkako erakusketa batean; gerora, erakusketa hori Salamancako Domus Artium eta Melbourneko Australian Centre for the Moving Image.

Marclay-k gainera 1979tik musika jo eta grabatu du. Fonografo-diskoak "musika-tresna" moduan baliatzen ditu, eta nahaste-mahaian elkartu eta eraldatzen ditu, modu nabarian baina maisuki. European, Japonian, Kanadan eta AEBn eman ditu ikuskizunak, eta haren lanak grabatu ditu musikari eta musikagile ezagunekin, esaterako, Shelley Hirsch, Kronos Quartet, Ikue Mori, Butch Morris, Günter Müller, Zeena Parkins, Elliott Sharp, Sonic Youth, Christian Wolff, John Zorn eta beste askorekin.

Film & Video (103. aretoa)

Martxoaren 6tik aurrera, Museoko 103. aretoa, orain Film & Video izena duena, irudia mugimenduan darabilten lanei eta bideoarteari eskainiko zaie. Joera horretako artista gailenak eta lan esanguratsuak hartuko ditu.

Lan asko Guggenheim Bildumetakoak izango dira; izan ere, azken hamarkadetan gaur eguneko artea bildu dute nagusiki, eta arreta berezia eskaini diote bideoarteari eta bideinstalazioari. Horrek agerian jartzen du bideoarteak eta bideoinstalazioak azken hamarkadetako artearen garapenean eta gauzatzean izandako garrantzia.

Christian Marclay: Erlojua areto horretako lehen erakusketa izango da. Ikusgai egongo da martxoaren 6tik maiatzaren 18ra bitartean. Erakutsiko diren hurrengo artistak Rineke Dijkstra (maiatzean) eta Ragnar Kjartansson islandiarra (udazkenean) izango dira.

Azaleko irudia:

Christian Marclay

Erlojua (The Clock) laneko bideo fotograma, 2010

Kanal bakarreko bideoa, estereo soinuduna

24 ordu, begiztan

Christian Marclay

Hauen eskaintza: artista eta New Yorkeko Paula Cooper Gallery

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: 34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es